

'PRESTIGE' PETROLIONTZIAREN HONDAMENDIA

'Nunca mais / Sekula ez berriro' plataforma aurkeztu zuten atzo Barakaldon

Prestige petroliontzia-aren hondamendiak kaltetutako herriei laguntzeko asmoz atzo Barakaldon Nunca Mais / Sekula ez berriro izeneko plataforma aurkeztu zuten. Bizkaiko Galiziako etxeak sustatu du plataformaren sorrera, eta hainbat elkarte atxiki zaizkio. Plataformaren izenean Bizkaiko Galiziako etxe-ko presidentea mintzatu zen, Xulio Gonzalez. Aditze-ara eman zuenez, kaltetuei laguntza eskaintzen saiatuko dira, eta hondamendiarekin lotutako bidegabekeria oro «salatzen».

200 marinelek agerraldia egin zuten atzo Coruñan, 'Prestige'-ko kapitaina aska dezatela eskatzeko

Coruñako Itsasketa Zibileko eskolako ikasleek, irakasleek eta hainbat merkataritza-marinelek agerraldia egin zuten atzo *Prestige*-ko kapitaina aske uzteko eskatuz. Denera 200 lagun inguru elkartu ziren kontzentrazioan. Itsas Merkataritzako kapitain Pedro Ojea argia izan zen. «Ez dugu esaten ez duela jazotakoan ardurarik, baina tratu iraingarria eman diote, eta beste errudun batzuk ere badaude».

Petroliontzian pitzadura gehiago agertzea litekeena dela esan dute

Fernando Barriga geologo portugaldarrak iradoki duenez, balite etorkizunean pitzadura gehiago agertzea *Prestige* petroliontzia-aren kroskoan. Barrigaren arabera, ontzia hondoratuta dagoen gunea oso sismikoa da, eta mugimendu telurikoak gerta daitezke. Horretaz gain, denborarekin kroskoa herdoildu egingo dela esan du, kezkatu.

Petroliontziek tangak garbitzean, 'Prestige'-k baino 20 aldiz erregai gehiago isurtzen dute

Espainiako Adena/WWF erakunde ekologistak itsas-ian isurtzen diren hidrokarburoen egoera *Prestige*-ra ezin dela mugatu gogoratu du. Datu kezagarria plazaratu dute: urtean Mediterraneo-aren itsasoak 1,3 milioi tona erregai jasotzen ditu, *Prestige*-k barruan daramana baino 20 aldiz gehiago. Fuel-olioa petroliontziek tangak garbitzean isurtzen da.



MICHEL GANGNE / EPA
Arcachonen, fuel-olioz zikindutako hondartza bat garbitzen.

Mugerreko garraio-guneko biltegiak haserretu egin du herritarren gogoa

Asteazkenean hautetsiak prefetarekin bildu ziren, eta atzo Paueko auzitegian gaia aztertu zuten

Aitor Renteria | BAIONA

Asteazkenean bildu ziren Baionako suprefeturan Pirinio Atlantikoetako Prefetak eta 35 hautetsi inguru. Bilkuraren ardatz nagusia azken bolada honetan Lapurdiko hautetsi eta herritarren gogoak sutan jartzen dituen gaia izan zen: Mugerreko bilgunea.

Izan ere Prefetak *Prestige*-tik isuritako petrolio biltzeko gunea Mugerrean ezartzea deliberatu zuen neherekin aipatu gabe. Horretarako Mugerreko Garrioguneko orube bat erre-ikisatzen zuela jakinarazi zion gutunez herriko auzapezari.

Hautetsiek Mugerreko gunek hondakindegia eginkizunak betetzeko baldintzarik ez zuela betetzen arierazi zioten Prefetari. Prefetak bere aldetik, gunebaten beharra azpimarratu zuen, elkartasun irizpideetan bermatuz gunearen erre-ikisizioa sustengatzeko.

Prefetak adierazi zien herriari kalteordainak emanen dizkiola baina gai hori ezin dela aipatu petrolio hondakinak gunehorretan egon aitzin. Prefetaren arabera *Prestige*-ren marea beltzari buru egiteko herri guztiek elkartasunaren karta jokatu behar dute, salbuespenik gabe. Bilkura adostasunik erdietsi

gabe bururatu zen eta herriek abian ezari dituzten ekimenak bultzatuko dituztela adierazi zuten.

Auzia

Mugerreko Herriko Etxeak, Mouguerre Cadre de Vie eta CADE elkarteek Prefetaren erabakiaren kontrako salaketa ezarri zuten Paueko auzitegian. Salaketaren bidez, hondakin biltegia Mugerretik kendu eta gunegoki batera eraman dezaten eskatzen dute.

Kari horretara, atzo Pauen bururatu zen auzia herritarren nahikeriaren isla izan zen. Sala-

keta ezarri duten aldeek Prefetak abiatu prozedura bertan behar geldidarin eskatzen dute.

«Hautatu duten gunea ezinago txarra da, hondakinen isurketak lurrazpira iragaten dira eta azpiko geruza freatikoa kutsatuko dituzte» adierazi zuen Mugerreko Herriko Etxeko abokatuak. Prefetak erre-ikisatu duen biltegia Aturri ibaiaren ondoan dago eta inguruetan hainbat ubide daude, lurrazaleko isurketak ibairano eramanen lituzketenak.

Ildo beretik, Mugerreko Herriko Etxearen abokatuak azpimarratu zuen garraio gunean ez

dela antolaketa berezirik egin eta inguru-eto lantokietako 400 langileek ondorio txar guztiak pairatuko dituztela. Etxebizitzetara dagokienez, hurbilena 300 metrora dago eta gertuen dagoen lantegia 10 metrora.

«Gunearen ezaugarriak aztertu badituzte, zergatik hautatu dute Mugerrekoa, bertze 11 gunez zerrendan zirelarik?», galdetu zuen abokatuak.

Prefeturak hainbat teknikari deitu zituen erabakiaren zergatiak azaltzeko. Teknikarien iritziz, geruza freatikoa kutsatzeko arriskurik ez dago eta Departamenduko Osasun Zerbitzuek adostasuna eman diote guneari.

Petrolio hondakinak metatzeko erabiliko diren bi urtegi-etoakien, teknikari-eto jakinarazi zuten gehienez bi urteko iraupena ukane zutela. Horrez gain, inguru-eto lurrak babes- tuko dituzte. Horretarako autopistetan erabiltzen den zoru mota ezarriko dute.

Egoera larria izanez berehalako erabakiak hartu behar izan direla azpimarratu dute teknikari-eto. Gehiengoaren intere- sak kontuan hartuz Mugerreko aukera zuzena dela azpimarratu zuten. Paueko Auzitegiak bihar emanen du gaiari buruzko ebazpena.

GIRONDA**Marea beltz gehiago izan dira**

Azken bi egunotan bigarren marea beltza pairatu da Girondan eta Landesetan nagusiki. Seignosse eta Biscarrosseko hondartzen artean hainbat petrolio pikor agertu dira. Egoera larriagoa izan da Girondan, bereziki Arcachongo bokale inguruan. Arcachonez gain, La Teste, Lacannau, Vendays eta Souillac izan dira kaltetuenetarikoak. Ehundaka tona hondakin ateratu dituzte hondartza horietatik. Izan ere mendebaldeko haizeak Gironda aldera eta Landetara bultzatu ditu itsas zabalean zeuden petrolio opilak. Azken orduetan egoerak hobera egin bazuen ere, ondoko orduetan txarrera egin dezakeela adierazi zuten adituek. Meteo- frantsek bere aldetik eguraldiak txarrera egingen zuela iragarri zuen.